

EPEZ XIX ERASMUS+ BEKAK: ENPRESATAN PRAKTIKAK EGITEKO PROGRAMA

Euskal Herriko Unibertsitateak **atzerrian dauden enpresa/erakundeetan praktikak egiteko EPEZ XIX Erasmus +** izeneko beka-programa jarri du martxan:

- **Beka kopurua:** 40 beka
- **Jarduera:** enpresetan praktikak egitea, profil bakoitzerako lan-plan pertsonalizatuarekin. Enpresak hautatutako bakoitzaren profilaren eta interesaren arabera bilatuko dira.
- **Helmugak:** EBko herrialdeak, hala nola Irlanda, Italia, Malta, Polonia, Portugal, Txekiar Errepublika...
- **Hartzaileak:** 2023/2024 ikasturtean beren azken urtean dauden UPV/EHUko gradu edo master ofizialeko ikasleak; titulua 2024ko ekaina eta urria bitartean lortuko dutenak.
- **Hasiera datak:** 2025eko otsaila gutxi gorabehera
- **Iraupena:** Praktikek 3 hilabeteko iraupena izango dute.
- **Deialdia irekita:** 2024/06/07tik-2024/07/08ra

Bete beharreko baldintzen, bidali beharreko dokumentazioaren eta epeen informazioa eskuratzeko:

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/praktikak-erasmus-epez-24-25>